





BAZKALTZERA

	 20 min
MATERIALA	
<ul style="list-style-type: none">- Mahaia eta aulkiak- Platerak sardexkak, labanak goilarak eta edalontziak.	

AZALPENA

Batek bazkaltzera deituko die besteei

- Bazkaltzera zatozte denak!
- Bazkaria prest dago!

Mahaikideak azalduko dira. Bakoitzak komentario bat egin dezake:

- Hau gosea!
- Bazen garaia!
- Itxoin pixka bat! Oraintxe noa.

Denak elkartu direnean honela galdegingo dute.

- Zer dago gaur bazkaltzeko?

Sukaldariak mila erantzun ditu aukeran

- Gaur zopa daukagu hasteko eta gero oilaskoa.

Besteek erantzun desberdinak eduki ditzakete:

- Bai ondo!
- Oilaskoa gaur ere!
- Badakizu niri ez zaidala zopa gustatzen!
- Oilaskoa goxo-goxo dago!
- Zopa geza dago!

...



EZTABAIDA

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Egoera bat azalduta, hurrek rol desberdinak defendatu behako dituzte. Nahikoa da hemen agertzen diren gaiak edo antzekoak haurrak hitz egiten hasteko:

* Anetxu haserre dago eta ez du amarekin erosketak egitera joan nahi. Amak berokia jantzi nahi dio, baina Anetxuk ezetz eta ezetz dio, aurre egiten dio berokia ez jartzeko. Amak konbentzitu egin nahi du :

- Baina hotz egiten du. Jantzi ezazu berokia.
- Ezetz. Ni ez naiz kalera joango. Telebista ikusi nahi dut.

* Unaik jostailu bat dauka eskuetan, Itziarrek eskatzen dio. Unaik ez dio eman nahi. Itziarrek kendu egiten dio eta azkenik tirabiratan puskatu egiten da. Errua noski elkarri botatzen diote.



NOLAKO EGURALDIA DAGO?

	 20 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Haur bat kanpora irteten da eta leihoaren beste aldetik nolako eguraldia egiten duen adierazi behar du keinuen bidez: eguzkia, euria, elurra, haizea, beroa, hotza,...

Besteek adierazitakoa asmatu behar dute.

Jolas honen bitartez ikasleak ikas dezaketen hiztegia:

IZENAK: ipar-haize, hego-haize, epel, bero, hotz, lanbro, sargori, haize, euri, lurrikara, ekaitz, ostadar, tximista, trumoi, giro, izotz, laino.

EKINTZAK: lurrindu, urtu, busti, erre, izoztu, berotu, hoztu, argitu, lehortu, egosi, kiskaldu, ihartu, lainotu.

ESALMOLDEAK: euria barra-barra ari du, eguzkiak bete-betean jo, elurra mara-mara ari du, mela-mela gelditu, hotzak dardarka egon, haizea firi-firi ari dabil, blai-blai gelditu.



NON DA AINHOA?

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Ainhoak etxera gonbidatu zaitu. Baina haren etxera iritsi zarenean, harrিতuta geratu zara: Ainhoa ez dago etxean. Amak hondartzara (edo beste norabait) joan dela esan dizu. Zuk datu gehiago eskatuko dizkiozu amari:

- Noiz joan den.
- Nongo hondartzara joan den.
- Zer tokitan egoten den.
- Nolako bainujantzia daukan.
- ...

ALDAERAK

Ainhoa hondartzara joan beharrean beste edozein tokitara joan da:

- Mendira, zinemara, zirkora, kalera...



TAXI - TAXI!

	 15 min
MATERIALA - Lau aulki.	

AZALPENA

Lau aulki ipintzen dira auto batean bageunde bezala. Batean txoferra jartzen da. Bezeroa igotzen denean, elkarrizketa sortzen da:

- Bezeroa - Taxi, taxi!
- Taxista - Egun on, nora zoaz?
- Bezeroa - Hondarribira, azkar!
- Taxista - Hondartzara zoaz ala?
- Bezeroa - Ez ez. Hegazkina hartu behar dut.



TXAKURRA EROS EZAZU

	 15 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA



Ikasle batek beste bat konbentzitu beharko du zernahi gauza erosteko. Erosleak ez dio baiezkorik emango hasieratik, eta azalpenak eskatuko dizkio.

Adibidez zakur bat saltzeko:

- Saltzailea: Begira zer zakur polita. Merke-merke salduko dizut.
- Eroslea: Alde, alde. Abereak ez dira etxean edukitzeko.
- Saltzailea: Nola ezetz? Zergatik ba?
- Eroslea: Etxea zikintzen dute. Kaka eta pixa egiten dute. Eta etxeko gauzak apurtzen dituzte.
- Saltzailea: Ez gizona! Zakur hau oso ondo ikasia dago. Lasaia da. Kaka toki berean egiten du beti horretarako ipintzen zaion tokian. Zakurra gizonaren lagun handiena da.
- Eroslea: Izan ere, oso polita da. Baina garestia izango da niretzat.
-



ZAPATAK EROSTEN

	 15 min
MATERIALA - Zapatak, kaxak, adarra	

AZALPENA

Erosketek beti mintzatzeko aukera egokia eskaintzen digute eta aldi berean nork bere gustuak eta beharrak adierazteko. Gidoi berdintsua jarraituz egin ditzakegu zapaten, galtzen, alkandoren, etabarren erosketak.

- Dendaria: Arratsalde on, zer nahi duzue?
- Ama: Asierrentzako oinetakoak eroatera gatoz.
- Dendaria: Zer oinetako klase nahi duzu, Asier? Zapatak, botak, sandaliak, zapatilak?
- Asier: Nik zapatilak nahi ditut.
- Ama: Zer koloretakoak gustatzen zaizkizu?
- Asier: Urdinak
- Dendaria: Tira, probatu hauek, ea ongi dituzun.
- Asier: Txikiak ditut eta gainera oso itsusiak dira.
-

Gidoia luzatzeko gertakizun gehiago asma daitezke:

- Zapatak alderantziz jantzi ditu haurrak
- Min ematen diote
- Nahi ez dituen zapatak sartu dizkiote kaxan
- ...



ZIZURKO KATU ZAHARRAK TXISA EGIN DU

	 15 min
MATERIALA: Ø	



AZALPENA

Borobila egin eta mezu bat pasatu behar da ahoz aho. Lehenengo haurrak doinuera aukeratuko du (barrez, negarrez, harriduraz, normal, triste, haserre...). Bigarrenak galdetuko dio, eta lehenak baieztatuko dio galdetutakoa. Horrela, haur guztiek parte hartu arte. Buelta bakoitzean doinuera aldatuko da. Barrezka, negarrez....

1. haurra - Zizurko katu zaharra txisa egin du!
2. haurra - Txisa egin du?
1. haurra - Txisa egin du.
2. haurra - Zizurko katu zaharrak txisa egin du!
3. haurra - Txisa egin du?
2. haurra - Txisa egin du.



ZURI KLERA EMAN DIZUT

	 10 min
MATERIALA	
- Gelako materialaz balia gaitzke	

AZALPENA

Ikasle batek gauza batzuk banatzen ditu beste lagunen artean. Haien atzean ezkutatuko dute eman zaiena eta banatzaileak bakoitzari zer eman dion gogoratu behako du:

- Zuri klera eman dizut.
- Ez, niri betaurrekoak eman dizkidazu.
-

ALDAERAK

Jolas hau zaildu daiteke banatutako gauzak gehituz, hots, haur bakoitzari gauza bat eman beharrean gehiago emanez. Ondorioz, aditza pluralean jarri beharko da.